


2024ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEko ezkontzak % 9,1 igo ziren

Urte osoan ezkontzak % 2,2 igo ziren

Eustaten datuen arabera, 2024ko laugarren hiruhilekoan 1.660 ezkontza izan ziren Euskal AEn, aurreko urteko hiruhileko berean baino % 9,1 gehiago.

Lekua kontuan hartuta, Araban ezkontzak % 43,7 (227) hazi ziren, Gipuzkoan % 17,1 (574) eta Bizkaian % 2,7 (785). Bestalde, kide bietako bat gutxienez egoiliarra izan den 74 ezkontza Euskal AEtik kanpo inskribatu ziren.



Ezkontza guztietatik 1.586 sexu desberdineko pertsonen arteko ezkontzak izan ziren eta 74 sexu berekoen artekoak: 37 gizonen artekoak eta 37 emakumeen artekoak.

2024ko laugarren hiruhilekoan, 10 ezkontzatik 9 zibilak izan ziren, % 93,6. Ehuneko hori, 2023ko hiruhileko berean, % 92,6 izan zen.

2024ko laugarren hiruhilekoko 1.660 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 1.595 gizon eta 1.603 emakume ezkondu ziren. 1.327 emazte (% 82,8) lehen aldiz ezkondu ziren, alargunak 9 izan ziren eta dibortziatuak 267. Senarrei dagokionez, 1.295entzat (% 81,2) lehen ezkontza izan zen; 14 alargun eta 286 dibortziatu, aldiz, berriro ezkondu ziren.

Ezkontideen adinaren arabera banaketari dagokionez, emazteen % 85ek eta senarren % 90,6k 30 urte baino gehiago zituzten. 2023ko aldi berean, ehuneko hori % 85,9 izan zen emakumeen artean eta % 91,2 gizonen artean.

2024ko laugarren hiruhilekoan, gizon ezkonberrien % 15,3 eta emakume ezkonberrien % 14,2 atzerritarak ziren. Aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, ehuneko hori 7 hamarren igo da emakumeen artean, eta 8 hamarren gizonen artean.

2024KO BALANTZEA

2024ko behin-behineko zenbaketan, Euskal AEn bizi diren pertsonen ezkontzak 7.427 izan ziren; hau da, aurreko urtean baino % 2,2 gehiago.

Ezkontza zibilen ehunekoa % 92,4 izan zen, 2023an baino ia bi puntu gehiago, orduan % 90,5 izan baitzen.

2024an, senarren % 91,4k eta emazteen % 85,4k 30 urte edo gehiago zituen. 2023an, ehuneko horiek % 90,7 eta % 85,4 izan ziren, hurrenez hurren.

Egoiliarren ezkontzak, inskripzio-lurraldearen, ezkontza-motaren, ospatzeko moduaren, aurreko egoera zibilaren, adinaren eta ezkontza-hilabetearen arabera (1). 2024/IV

	2024/IV		2024/III			2023/IV		
	KOP	%	KOP	%	Δ%	KOP	%	Δ%
Ezkontzak	1.660	100,0	2.293	100,0	-27,6	1.522	100,0	9,1
Araba / Álava	227	13,7	342	14,9	-33,6	158	10,4	43,7
Bizkaia	785	47,3	997	43,5	-21,3	764	50,2	2,7
Gipuzkoa	574	34,6	762	33,2	-24,7	490	32,2	17,1
Euskal AEtik kanpo	74	4,5	192	8,4	-61,5	110	7,2	-32,7
Sexu desberdineko pertsonen artean	1.586	95,5	2.219	96,8	-28,5	1.471	96,6	7,8
Kanonikoak	107	6,4	253	11,0	-57,7	113	7,4	-5,3
Zibilak	1.479	89,1	1.966	85,7	-24,8	1.358	89,2	8,9
Sexu bereko pertsonen artean	74	4,5	74	3,2	0,0	51	3,4	45,1
Gizon artean	37	2,2	33	1,4	12,1	27	1,8	37,0
Emakume artean	37	2,2	41	1,8	-9,8	24	1,6	54,2
Senar-emazteak	1.595	100,0	2.197	100,0	-27,4	1.456	100,0	9,5
Ezkongabea	1.295	81,2	1.845	84,0	-29,8	1.217	83,6	6,4
Alargunak	14	0,9	25	1,1	-44,0	10	0,7	40,0
Dibortzuatuak	286	17,9	327	14,9	-12,5	229	15,7	24,9
< 30 urte	150	9,4	187	8,5	-19,8	128	8,8	17,2
30 - 39 urte	639	40,1	974	44,3	-34,4	610	41,9	4,8
= 40 urte	806	50,5	1.036	47,2	-22,2	718	49,3	12,3
Espainiarrak	1.369	85,8	2.008	91,4	-31,8	1.261	86,6	8,6
Atzerriko nazionalitatea	226	14,2	189	8,6	19,6	195	13,4	15,9
Jaiotza-herrialdea Espainia	1.268	79,5	1.884	85,8	-32,7	1.168	80,2	8,6
Jaiotza-herrialdea beste bat	327	20,5	313	14,2	4,5	288	19,8	13,5
Emazteak	1.603	100,0	2.202	100,0	-27,2	1.442	100,0	11,2
Ezkongabea	1.327	82,8	1.883	85,5	-29,5	1.193	82,7	11,2
Alargunak	9	0,6	8	0,4	12,5	7	0,5	28,6
Dibortzuatuak	267	16,7	311	14,1	-14,1	242	16,8	10,3
< 30 urte	241	15,0	356	16,2	-32,3	203	14,1	18,7
30 - 39 urte	679	42,4	967	43,9	-29,8	656	45,5	3,5
= 40 urte	683	42,6	879	39,9	-22,3	583	40,4	17,2
Espainiarrak	1.358	84,7	1.934	87,8	-29,8	1.231	85,4	10,3
Atzerriko nazionalitatea	245	15,3	268	12,2	-8,6	211	14,6	16,1
Jaiotza-herrialdea Espainia	1.171	73,1	1.755	79,7	-33,3	1.097	76,1	6,7
Jaiotza-herrialdea beste bat	432	26,9	447	20,3	-3,4	345	23,9	25,2
Ezkontzaren hilabetea								
Urria	806	48,6				683	44,9	18,0
Azaroa	536	32,3				495	32,5	8,3
Abendua	318	19,2				344	22,6	-7,6

(1) Hiruhileko honetako eta aurreko hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2025eko Maiatzaren 20a

Iturria: Eustat. Ezkontzen Estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel: 945 01 75 62